



BIDE OSAGARRIAREN AZTERKETA ELEKTROFISIOLOGIKOA ETA ABLAZIOARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Azterketa elektrofisiologikoak (EEF) aukera ematen du pairatzen duzun arritmia suprabentrikularra diagnostikatzeko. Halaber, bihotzean non sortzen den eta zer nahasmendu eragiten dizkizun jakiten laguntzen du. Informazio horri esker, zure medikuak erabaki dezake zuretzako tratamendurik onena.

Ablazioa arritmia jakin batzuetarako tratamendua da. EEFk diagnostikoa baieztatzen duenean erabiltzen da; adibidez, takikardia ortodromiko bat bide osagarritik (zirkuitu elektriko anormal bat bihotzean). Ablazioak arritmia eragiten duten fokuak suntsitzen ditu irrati-maiztasuneko energia (tentsio txikiko beroa) edo krioenergia (hotz lokala) erabiliz. Helburu da arritmia sortzen duen gune zehatzean lesio txiki bat eragitea, arritmia hori ezabatzeko.

Zertan datza?

Prozedura anestesia lokala erabiliz egiten da (eremua soilik lokartzen da). Zenbait kasutan, baliteke sedazio sakona behar izatea (oso erlaxatuta egongo zara, ia lo). Hala balitz, prozeduraren aurretik anestesioologo batek baloratuko zaitu.

Prestaketan, eskuineko iztaiko eremua soilduko dizugu. Etxean zuk zeuk egin dezakezu, proba baino lehen.

Gero, mediku-taldeak zain femorala ziztatuko du, eta batzuetan eskuineko arteria femorala, iztai aldean. Ziztada horretatik kateter batzuk sartzen dira (kable oso finak, luzeak eta malguak). X izpien edo erradiaziorik gabeko nabigazio-sistemen laguntzarekin, kable horiek bihotzeraino eramaten dira.

Arritmiaren diagnostikoa baieztatzen denean, talde medikoak foku sortzailearen ablazioa egiten du. Kasu horretan, bide osagarria tratatzen da.

Zer beharko dut ebakuntzaren aurretik?

Diziplina anitzeko talde batek (hainbat arlotako espezialistek osatua) prozedura zuretzat egokia den baloratuko du. Ebakuntzaren aurretik, baimen informatua sinatu beharko duzu.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

Antikoagulatzaileak hartzen badituzu (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen medikamentua), mediku-taldeak egun horietan nola hartu azalduko zizun.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean: hartu ohiko medikazioa.
- Prozeduraren egunean: ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean intsulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Hortzordeak badituzu, harrera-solairuan sartzen zaren unean kendu beharko dituzu.

Audifonoak erabiltzen badituzu, izan itzazu jarrita ondo komunikatu ahal izateko.





Nora jo behar dut ebakuntzaren egunean?

Joan zaitez Txagorritxuko Ospitaleko onarpen-zerbitzura. Beheko solairuan dago, sarreraren ondoan. Handik, harrera-unitatera lagunduko dizute.

Nola egingo didate prozedura?

Ospitalizazio-unitatera iristean:

- Harreran ohe-atorra bat emango dizute, eta jantzi egin beharko duzu. Azpiko arropa eta objektu pertsonalak kentzea gomendatzen dizugu.
- Erizainak zain bide bat (kateter fin bat) jarriko dizu ezkerreko besoan, beharrezko sendagaiak emateko.

Prozedura nola egiten den:

- Ohatilan etzango zaituzte, eta beharrezkoa denean soilik desestaltuko dizute gorputza.
- Prozedura osoan monitorizatuko zaituzte, hauen bidez:
 - Pegatina batzuk (elektrodoak), prozedura osoan, zure bihotzaren jardueraren erregistroa (elektrokardiograma) ikusteko.
 - Tentsio arteriala hartzeko mahuka bat.
 - Batzuetan, saturimetro bat atzamarrean, oxigeno-maila neurtzeko.
- Izara esteril batez estaltuko zaituzte, eta eskuineko iztaiaren eremua soilik utziko da agerian.
- Anestesia lokala emango zaizu eremuan, prozedura mingarria izan ez dadin.
- Amaitzean, kateterrak kendu eta eskuzko konpresioa egingo da iztaiari, ziztada-puntua ixteko.

Prozeduraren iraupena aldakorra da. Batzuk 4 edo 5 ordu arte luza daitezke.

Zer egin behar dut proba eta/edo ablazioaren ondoren?

Ebakuntzaren ondoren, ospitaleratuta egongo zara. Ezingo duzu jan prozedura amaitzen denetik 2 ordu igaro arte.

Eskuineko hankan erabateko atsedena izan beharko duzu prozedura amaitu ondorengo 6-8 orduetan, hematoma bat sor ez dadin (larruazalaren azpian odola metatzea).

Ustekaberik ezean, egun horretan bertan itzuliko zara etxera. Batzuetan odoljario lokala ager daiteke, eta gau bat ospitalean igaro behar izaten da, hori kontrolatzeko.

Etxean, jarrai itzazu ziztada-eremua zaintzeari buruz emango dizkizuten gomendioak. Ez egin ahalegin fisikorik egun batzuetan.

Alta ematean, arritmia-konsultarako jarraipen-hitzorduek emango zaizkizu.





KARDIOLOGIAKO TALDEAK ZURE INTERBENTZIOAREN BIDEOA IKUSTEA PROPOSATZEN DIZU

1. KONEKTA ZAITEZ HEMEN:

<https://meduvipiberia.okast.tv>

Edo eskaneatu hurrengo QR kodea



2. IDENTIFIKA ZAITEZ HEMEN:

Helbide elektronikoa: cardio@txago.eus

Pasahitza: **Cardio 1009**

3. KONEKTATU BERRIRO zure telefonoaren KAMERA eta ESKANEATU zure EBAKUNTZARI dagokion bideoaren QR KODEA:



4. Zure **EBAKUNTZARI** dagokion bideoa berriro ikusi nahi duzun bakoitzean, azken **QR KODEA** eskaneatu besterik ez duzu egin behar.